

# ZAPIRAIN ANAIAK

## VII. BERTSOPAPER LEHIAKETA.


### 1995

#### GAZTEEN SAILAN: LEHENENGO SARIA


...irrifar batek balio bait du hitz denek baino gehiago

*Arkaitz Estiballes Ormaetxea (Galdakao)*

(Doinua: Izugarri bat... A. Duhalde / X. Amuriza)



Ez dakit zer den, arazoren bat  
edo kafe ditzosoa,  
baina ezta erosoia,  
etzaidalako oraindik heldu  
logurearen lausoa,  
lokartu asmoz buelta ta buelta  
badaramat gau osoa,  
nola naiz hain inozoa?  
Burutik ezin kendurik nabil  
zure irrifar gozoa.



Abuztuaren hogeitalaua  
ahaztezina den gaba,  
hau ere ezin ezaba,  
zu ezagutu zintudalako  
izango da beharbada,  
kontu kontari ibili ginen  
tabernatik tabernara,  
eginez mila algara,  
eskutik heldu ta joan arte  
txoko lasai batetara

# 3

Ez nuen uste urrun heltzerik  
gure lehenengo zitan,  
baina usteak sarritan,  
erdia ustel samarra ere  
izaten du bere baitan,  
instintuari kasu eginaz,  
pentsatu gabe birritan,  
urduri ta izerditan,  
elkar maitatu genuen biok  
farola baten argitan.

# 4

Zure gorputza goitik beheraino  
gura nuen ezagutu,  
logika dena apurtu,  
hatzamarrekin dena ikusi,  
begiradekin ikutu,  
gure masailak, gure bularrak,  
gure ezpainak estutu,  
gorputz bakar baten urtu,  
hitzak poema bihur zitezen  
eta orduak minutu

# 5

Zeinen hezea ta bustia zen  
laztana zure ezpaina,  
zeinen gaiztoa mingaina,  
nire beroa freskatu zedin  
zeinen iturri bikaina!  
Bere emariz ase ninduzun,  
egia da alajaina!  
Gehiago nahi nuke baina,  
harkaitzen aurka apurtzen diren  
olatu guztiak aina.

# 6

Hoztu zen gure bihotz beroa  
ta gure larruazala  
denbora pasatu ahala,  
ta eman nizun azken musua  
berriz janzten genbiltzala,  
esan zenidan zuretzat zerbait  
berezia baneukala,  
baina hitzak berehala  
haizearekin joaten dira  
une gozoak bezala

# 7

Berdin dit zein den zure jatorri  
pentsaera ta adina,  
erlijio zein doktrina,  
zaren bezala zu onartzeko  
egingo dut ahalegina,  
nahiago nuke minutuero  
nire ondoan bazina  
ta baita ere, jakina,  
zuk sentitzea nik zuregatik  
sentitzen dudana berdina

# 8

Bata bestea ikusi gabe  
nahiz ta egunak igaro  
nik zu zaitut maiteago,  
baina gauetan lo egin gabe  
ezin dut iraun luzaro;  
telefonotik hitzegun arren  
astean zehar oparo  
zu ikusteko zai nago,  
irrifar batek balio bait du  
hitz denek baino gehiago

# HELDUEN SAILAN: LEHENENGO SARIA

## MALITIK CEUTARA. CEUTATIK...

*Jon Odriozola (Hernani)*

(Doinua: Andoni Egañaren "Umetxo batek...")

Sianua da nere izena  
hitz bitan, "bihotz alaia".  
Malin gosea ugari baina  
lanikan ez dugu ia  
ta familian tripazorriak  
jakirik gabe mahaia;  
abiatzeko garaia...  
Frantzian badut anaia  
bere lantokia kaia.  
Argal samarra banago ere  
izeia bezain garaia,  
gau eta egun lan egitea  
horixe da nere nahia.

Malitik irten, Mauritania  
Argelia ta Melilla,  
ondoren Ceutan topatu nuen  
mugalari bat "abila".  
Patera hartan bidaiatzeko  
eman nion diru pila,  
gau beltza bezain ixila  
txalupan ametsak mila...  
Tarifan, Goardia Zibila.  
Lauzpabost aldiz esan didate  
etxera itzul nadila...  
gaur hiru urte irten nintzela  
paradisuaeren bila.

Beltzek batipat osatzen dugu  
Ceutako etorkin tropa  
une honetan ez dugu ezer  
ez diru ta ez arropa.  
Edozer gauza bazkaltzen dugu  
gaur okela, bihar zopa,  
jakiagatik mokoka  
lanik ezin dugu topa,  
hau da "esklabu" azoka.  
Eta goizero esku-eskura  
ikusten dugu Europa  
egon ezin hau, inondik ere,  
inori ez diot opa.

Gibraltarreko itsasartea  
lehen bait lehen nahi dugu jauzi,  
baina ohi denez jasan ditugu  
hainbat ikusi-makusi.  
Baldintza asko, azaldu arren  
dokumentu eta guzi,  
hamaika traba ta auzi  
- "Zertara etorri haiz hi?"  
zenbait jarrera itsusi.  
Itsu artean, esan izan da,  
begi okerra nagusi,  
ta begi bistan dago aseak  
gosea ezin ikusi.

Urrian Ceutan gertatu zena  
ez dut batere atsegin;  
ezjakin batzuk ta polizia  
ez ziren jardun oso fin,  
baina nolatan egin daiteke  
elkarri horrenbeste min?  
Gertatu zen dena arin...  
jendea lasaitu zedin  
batzuk hainbeste ahalegin.  
Ez al gaitzke zuri ta beltzak  
elkarrekin bizi berdin?  
eskuko hatzak Jainkoak ere  
ez zitun berdinak egin.

Urritik jada igaro dira  
ez dakit nik zenbat aste  
gatazka hartan galdu nituen  
txabola ta hainbat traste.  
Jendeak zion itsu-itsuan,  
- "Behingo batean zoazte!"  
nola zahar ala gazte,  
ezin ikusi gaituzte,  
ez nuen askorik uste!  
Batzuk gainera egin nahi zuten  
gure biziekin beste,  
otso maltzurra zer-nolakoa,  
semea beste hainbeste.

Herri aberats denen jarrera  
nolatan aldatzen ez den,  
txiro geranok daramatzagu  
mendeak kateak hausten,  
hala ta guztiz irtenbidea  
ez dugu inon ikusten.  
Arrazakeria pizten  
lau katu dabilta puzten,  
jarraitu goiari eusten!  
Garai batean Frantzi aldean  
premiatz behar gintuzten,  
orain ordea traba gara-ta  
ez gaituzte sartzen uzten.

Itsasaldeko hiri hontan lan  
oso gutxi dago berez  
eta dendetan, aldaba anitz  
lan bila jo arren aurrez  
Ceutatik zehar noraezean  
lurreko "kolillak" errez.  
"Txakur-txikien" beharrez  
ia hasi naiz negarrez...  
... ta ezlegala naizenez  
urte pare bat aritu zaizkit  
- "Pasako zara" esanez,  
ardi galdua aurki daiteke  
aldi galdua berriz ez.

Gaztetan hiru amets nituen,  
lana, dirua ta fama...  
Gogoratzen dut nere anaiak  
orain sei urte esana;  
- "Frantzi aldera etortzen bahaiz  
hemen lortuko dek lana".  
Malin utzi nuen dana  
neba, aita eta ama  
baita maite nuen dana.  
Kriskitin hotsez ezin dudanez  
eraldatu iragana,  
pena txiki bat daukat mundura  
zuri jaio ez izana.



Helduen saileko lehen  
saria: Jon Odriozola.  
(Argazkia: B. Irastorza).



Gazteen saileko lehen saria:  
Arkaitz Estiballes Ormaetxea.  
(Argazkia: B. Irastorza).